

# EUSKARA IDATZIAREN ZENBAIT AKATS (2)

1973

ANAITASUNAREN aurreko zenbakian, euskara idatziaren problema batzuk aztertu nituen. Oraingo artikulua honetan, Literaturan erabili izan den soluzio bat aztertuko dugu.

Idazle bezala, Joannes Leizarraga aipatuko dugu. Leizarraga hirugarren euskal idazle dugu. Haren idazlanak XVI. mendean\* argitaratu ziren. Nahiz eta orduan euskara idatzia bere hastapenetan\* egon (beharbada horregatik), problema tekniko batzuk sortu zitzaizkion Leizarragari. Eta hori, euskara idatziaren argitasuna lortu nahi zuelako izan zen.

Nik aurreko artikuluan aztertu nituen problemetarik bat, Leizarragari berari ere gertatu zitzaion. Leizarragak, a **organikodun** hitzen mugatasuna eta mugagabetasuna bereizi egin behar zirela ikusten zuen. Leizarragak argi eta garbi bereizi nahi zituen hitz idatzi bakar baten esanahi desberdinak.

A **organikodun** hitzen mugatasuna eta mugagabetasuna ez da argi ikusten, kasu bietan berdina idazten delako. Lehen esaten genuen bezala, bizkaitarrok ez dugu

horretan eragozpenik,  $a+a=ea$  egiten dugulako. Baina batasunerako  $a+a=a$  egitea aukeratu dugunez gero, bereizi egin beharko ditugu nolabait a sinplea eta a bi-koitza.

Leizarragak, hitzaren esannahia argi gera zedin, azentua erabiltzen zuen hitz mugatuetan; hots,  $a+a=á$  egiten zuen.

Ikus ditzagun Leizarragarengan harturiko adibide batzuk:

(Nezesario zen Jainkoaren Semea gure haragi propioa bezti ledin) Jainkoaren kontra gizonak egin ukan zuen **desobedientzia natura humanoan errepara ledin.**

Adibide honetan, **desobedientzia** eta **natura** hitzak a **organikodunak** dira. Baina kasu honetako **desobedientzia**, **desobedientzia** konkretu bat da, mugatua beraz; eta Leizarragak **desobedientzia+a=desobedientzia** idazten du.

**Natura** hitzak, **kumano** adjetiboarekin deklinatzen denez, ez du artikulurik hartzen.

Beste adibide bat:

Zergatik deitzen duk Elizá saindu? Zeren Jainkoak elejitu dituenak justifikatzen eta purifikatzen baititu **saindutasunetara** eta **inozentziatara**, **hetan\*** bere gloriá argi erazi dezantzat.\*

Honelako hainbat eta hainbat adibide aurki daiteke Leizarragarengan. Horretarako, «Euskal Protestantismoa zer zen» liburua erabili dut.

Aipatu nituen beste kasu bietarako ez dut soluziorik ezagutzen Literaturan.

Hala ere, hurengo artikuluan soluzio batzuk proposatuko ditut, kasu bakoitzerako. Bitartean, kezka berdina dutenek, beren soluzioa aipa dezakete, ea denon artean aberatsago eta trebeago bihurtzen dugun geure euskara, hizkuntza idatzia legez.\*

J. R. ETXEBARRIA

dezakete, daikee  
zitzaion, jakon

zitzaizkion, jakozen